

FAUNA PUBLIKOA

**“Gaur lotsa handia sentitu dut
euskal herritarrak babesteko
eginkizuna dutenek beraien
legezko ordezkariak
inguratzen dutela (sic) ikusita”**

**Andoni Ortuzar EAJko lehendakaria,
Ertzaintzako kide batzuen protestaz (Twitter)**

Otsoak hazteaz



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Kontu onik ez biolentziaren monopolioa haserre dabile-
nean: gaiztotuta dago giroa Ertzaintzan otsailaren 23an
agente bat bihotzekoak jota hil zenetik Athletic-Spartak
partiduaren atariko istiluetan. Letaginak erakutsi dituzte
200 agentek baino gehiagok EAEko Legebiltzarraren au-
rrean martxoko lehen egunean, orroka eskatu dute Estefa-
nia Beltran de Heredia sailburuaren dimisioa eta, Zadorra
Gasteiztik pasatzen dela probestuz, Jone Goirizelaia EH
Bilduko parlamentariak ere entzun ditu bere kontra sain-
gaka -Goirizelaia Iñigo Cabacasen familiaren abokatua
delako, segur aski-.

Ulertzen da Ortuzarren adierazpena beraz, ez baita ohi-
koa ertzainak horrela jokatzeko ikustea ordezkari politiko-
en aurrean. Itxoin. Bota atzera azken esaldia, hitz bat falta da
eta: ez da ohikoa ertzainak horrela jokatzeko ikustea orde-
zkari politiko *batzuen* aurrean, beste batzuei okerragoak
egitera iritsi baitira atzo goizean bertan, bestela gogoratu
zergatik bukatu zuen burutik odoletan Amalur Mendizabal
Amaiur koalizioko senatariak 2013an Hernanin -oraindik
orain bi urteko kartzela ezarri diote Mendizabal jo zuen
ertzainari eta Jaurlaritzak gehiegizko zigortzat jo du, Se-
gurutasun sailburuordea den Josu Zubiagaren bidez-.

Lotsa ez, beldurra sentitzen du askok “herritarrak ba-
besteko eginkizuna dutenak” eszenan agertzen direnean,
egin dezaketena erengatik bezainbeste, “beraien legezko
ordezkariek” joera daukatelako egingo duten ia edozer zu-
ritzeko. Beraz, hau ez da Ortuzarrengandik espero genuen
adierazpena: polizia autonomikoarekin momentu honetan
daukaten problema urtetako politika desegokien emaitza
txiki bat baino ez da. Otsoak hazten dituenak, orain edo
gero, haginkadaren bat jasotzen du. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



HEMENDIK DA, BAI,
BIDEA EZAGUTZEN DUT...



ADUR